


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

TRIUNFO 3



Egile eta data ezezagunak (1901/1904 inguru)
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, bost goi oin eta beste bat atzeraemana dituena (espedienteen 1917 eta 1920 artean jasodura bat eraiki zela aipatzen da, zein oinetan egin zen zehaztu ezinik). Harlanduzko fatxada. Art Nouveau estiloko laugarren eta bosgarren oinetan fatxada errematatzen duten mosaikoak nabarmentzen dira.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. goi oina, atzeraemana.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; mosaikoak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.